

Plazentziako «Iriyarena» Arozamena eta Garbizu donostiarrak eza-
gutarazi diguten baino bertso gehiagokin, eta Plazentziako zaharren
artean nork ez dakizki hamar bertsoak kantatzen? Meza nagusiko
«Kyrie, *eléison*» baino hobeto bai noski. Bai horixe! Gainera, sora-
luzearrak beren gatz bereziarekin egosia dure «Iriyarena» kanta. Ho-
negatik, 7garren bertsoa beren gisara aldatua. Plazentziarra inper-
nuan sartzen delarik, hara zelan heltzen dion kantari:

*Toki hartako berotasunez
bizi ro egarriturik
galdetzen zuen:
«Ez ahal da hemen
inun sagardutegirik?
Neri berrido tokatzen bazait
zeruetara sartzerik
iriarena joagatikan
ez det egingo saltorik.»*

J. S. M.

* * *

EUSKAL LITERATURA 72.—Izenburu hau daraman liburuak,
184. orrialdean, honela dio: «Obra hau 1971.go Agora sarira pre-
sentatu izan zen. Juradoak (Roque Arambarri, Antonio Arrue, José
Antonio Loidi, Juan San Martín, Antonio Zavala) saria «desierto»
deklaratu zuen.»

Auntza hil, ezta gero auntzaren gaberdiko eztula. Baina egile
«kupidagarri» horrek jarri gabe utzi duena, zera izan da: Egile zin-
tzoak, diru beharra zuelako, juraduko bati eskatu ziola saria berari
ematen ahalegintzeko, eta hala ere, estudiante gizajoaren eskari hau
aintzat hartu gabe, saria «desierto» deklaratu zuten. Halakorik!

J. S. M.

* * *

«*LAMINERO*» *ETA LAMINA GOZO-ZALEAK*.—Lehen aldiz
Erronkarin konturatu nintzen gozo-zaleeri «laminero» eta «lamine-
ra» deitzen ziotela, gizonezkoa eta emakumezkoa «o» eta «a»rekin

bereizturik, naturala den bezala Baina ez edozelako gozo-zaleeri, baizik jatorduetatik kanpo eta erdi-izkutuka janari goxoak harra-patuz ibiltzen direnei batez ere. «Laminero», «Laminera» hitz hau, geroztik Urraul-goian eta Romanzadon ere jasoa dut, eta konturatua naiz alde hoietako Nafarroan oso zabaldua dela. Joakin Lizarraga Elkanokoak, *Urteco igande guzietarako platicac edo itzaldiac* (1846) liburuaren azken orrietan dakarren hiztegitxoan era honetara agertzen du: Laminurria, *golosina*; *Lamitza*, goloso. «Laminero (a)» bertatik datorrela, aski argi dagoela iduritzen zait.

Inoiz pentsau dut «mihina» (mihin-gaina)-ren zer ikusia ote duen. Baina J. M. Barandiaranek *Estelas Funerarias del País Vasco* (1970) liburuaren 58garren orrialdean dakarrena irakurririk, sineskera zaharretatik gelditu zaigun hitza dirudi.

Hara zer berri ematen digun J. M. Barandiarangoak: *Bazterretxea* baserrikoak, Barbierrek dionez, gauero, lotara joan aurretik, supazterrean uzten omen zituzten arto-erreak, urdai-atalak eta oporresnea. Gero laminak etortzen eta jaten oparia. Donamartirin laminentzat artoa uzten omen zuten eta haiek jaten eta hango lurretan lan egi esker onez. Uhart-Mixen soro-ertzean zenbait janari nekazari-ek uzten omen zuten; gau hartan laminak etortzen omen eta soroko lanak azkentzen. Ultzama-Arraizko *Sunbillenea* etxeko artzaiak egunero *Abauntz harpeko* laminai kaiku-esnea ematen omen zien. Batzuek diotenez, gaztanbera omen zen ematen zuena. Orozkon pitxar bat sagardo uzten omen zuten laminentzat eta hoek, gauaz, edaten eta pozik beren tokira itzultzen; baina opari hori ager ez ba-zan, upelak hausten omen zituzten.

J. S. M.

